

179. ALDIZKARIA - 2017ko irailaren 15a

BAZTAN

Laburpena, kirol klubek ohiko kirol jarduerak egiteko 2017ko diru-laguntzena

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz, argitara ematen da deialdiaren laburpena; horren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhfp.gob.es/bdnstrans/GE/eu/index>): DDBN (identifikazioa): 361353.

Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko abuztuaren 25ean egin bilkuran, onetsi zituen Baztango kirol klubek ohiko kirol jarduerak egiteko diru-laguntzen 2017ko deialdi publikoaren oinarri arautzaileak.

Lehena.—Onuradunak.

Oinarri hauen xede diren diru-laguntzak jaso ditzakete egoitza soziala Baztanen duten kirol klubek.

Bigarrena.—Xedea.

Oinarri hauen xedea da egoitza soziala Baztanen duten kirol klubei diru-laguntzak norgehiagokako araubidean ematea arautzea, ohiko kirol jarduerak egin ditzaten.

Hirugarrena.—Oinarri arautzaileak.

<http://www.baztan.eus/baztango-kirol-klubek-kirol-jarduerak-garatzeko-diru-laguntzak/>

Laugarrena.—Zenbatekoa.

Laguntzetarako dagoen diru kuota osoa: 50.750,00 euro.

Bosgarrena.—Eskabideak aurkezteko epea.

Diru-laguntzako eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu. Eskaerak adierazitako epetik kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

Baztanen, 2017ko abuztuaren 25ean.—Alkatea, Joseba Otondo.

Iragarkiaren kodea: L1710381